



**Ebazpena, 2021eko otsailaren 11koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behinean ebazten baita 2020/2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroan (TKNIKA) Ekimen Ekintzaileko Dinamizatzaile lanpostu bat zerbitzu-eginkizunean edo behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko abenduaren 1eko Ebazpenaren bidez, 2020/2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroan (TKNIKA) Ekimen Ekintzaileko Dinamizatzaile lanpostu bat betetzeko deialdia egin zen.

Era berean, deialdi horren bederatzigarren artikuluekin bat etorritik, Balorazio Batzorde Orokorreko buruak deialdi honen ebazpen-proposamen bat igorriko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendariari, azken horrek deialdiaren behin-behineko ebazpena har dezan onartutako eta baztertutako langileekin eta hautagaitzei emandako puntuazioarekin.

Horrela, balorazio-batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

**Lehena.**- Hezkuntza Sailaren webgunean argitara ematea esleipenaren eta baztertuen behin-behineko zerrenda, I. eta II. eranskinetan, hurrenez hurren, jasotako behin-behineko emaitzekin.

**Bigarrena.**- Interesdunek hiru egun balioduneko epean egin ahal izango dituzte erreklamazioak, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 11n

Blanca María Guerrero Ocejo  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

